


Gizajo baten

EGUNKARIA

IHESALDIA



Jeff Kinney

ALBERDANIA

Gizajo baten

EGUNKARIA

IHESALDIA



Jeff Kinney

ALBERDANIA



JEFF KINNEY-REN BESTE LIBURUAK

Gizajo baten egunkaria (Greg Heffley-ren egunerokoa)

Gizajo baten egunkaria: Rodrick-en legea

Gizajo baten egunkaria: Hauxe besterik ez nuen behar

Gizajo baten egunkaria: Egun zakurrak

Gizajo baten egunkaria: Egia gordina

Gizajo baten egunkaria: Etxean itxita

Gizajo baten egunkaria: Bikotean hiru

Gizajo baten egunkaria: Suerte txarra


Gizajo baten egunkaria: Txango zoroa

Gizajo baten egunkaria: Eskola zaharra

Gizajo baten egunkaria: Dena ala ezer ez

ITZULTZAILEA:

Miren Arratibel



Gizajo baten

EGUNKARIA

12

IHESALDIA

Jeff Kinney



ARGITARATZAILEAREN OHARRA: Fikzio lan bat da hau. Izenak, pertsonaiak, lekuak eta gertakariak egilearen irudimenaren emaitza dira, eta fikzioaren legeen arabera erabiltza daude. Beraz, antzekotasunik baldin badago benetako pertsonekin (hilak zein biziak), merkataritza guneekin, leku edo gertakariekin, halabeharri zor zaio erabat.

*Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren laguntza
izan du liburu honek.*

Jatorrizko izenburua:
The getaway

Wimpy Kid testu eta ilustrazioen copyright-a © 2017, Wimpy Kid, Inc.
DIARY OF A WIMPY KID®, WIMPY KID™ eta Greg Heffley design™
Wimpy Kid, Inc-en marka erregistratuak dira, eta lan honen azalaren diseinua
Wimpy Kid, Inc.-en irudi komertziala da.
Eskubide guztiak erresalbatuta.

Liburua Jeff Kinneyk diseinatu du
Azala Chad W. Beckerman-ek and Jeff Kinneyk diseinatu dute

Ingelesez lehen aldiz, 2017an,
Amulet Books-ek argitaratua eta ABRAMSek inprimatua.
(Herrialde guztietarako eskubide guztiak erresalbatuta)

© Itzulpenarena: 2020, Miren Arratibel
© Argitaraldi honena: 2020, ALBERDANIA, S.L.
Istillaga, 2 beheka C, 20304 Irún
Tf.: + 34 943 63 28 14
alberdania@alberdania.net
www.alberdania.net


ISBN: 978-84-9868-610-4
Legezko Gordailua: SS-144/2020

ANNIERENTZAT

ABENDUA

Igandea

Oporrak kontatzen dizkizutenean, okerreana da POZTEN zarelako plantak egin behar dituzula. Inork ez baitu gustukoa besteek zein ongi pasatu duten entzutea, bera HAN EGON EZ denean.




GAIZKI pasatutako oporren kontakizuna entzutea bakarrik gustatzen zait niri. Horrela ez naiz triste jartzen nik halako oporrak dirik eduki ez izanagatik.



Tira, gure familia oporretatik itzuli berri da, eta, zer nahi duzue esatea, aukeran nahiago nuke ETXE ZULOAN geratu banintz. Ez nuen aukerarik izan, ordea.

Orain aste batzuk, oporretarako ASMORIK ere ez genuen etxean. Abendu normal-normala izaten ari ginen, eta Gabonak iristeko irrikaz nengoen.


Ama eta aita estresak jota zeuden, ordea, ospakizunetarako makina bat gauza prestatu behar zutelako. IZUGARRI atzeratuta genbiltzan Gabonetarako etxea apaintzen, eta hankaz gora zegoen dena.




Ziur nago elkarrekin aritu bagina garaiz iritsiko
ginela Gabonetarako. Baina, gau batean, iragarki
bat ikusi genuen telebistan, eta PIKUTARA joan
ziren gure plan guztiak.



Isla de Corales zeritzon toki bat agertzen zen
iragarkian. Hantxe igaro zuten gurasoek beren
eztei bidaia. Iragarkia telebistan ateratzen den
oro biak elkarri musuka hasten direlako dakit hori.



Ondoeza jartzen zait gurasoak gu jaio aurretik nolakoak ziren imajinatzean. Eta ez zitzaidan HALAKORIK gertatuko, amak urtero-urtero beren eztei bidaiako argazkiekin halako matrakarik emango ez baligu ezkontzaren urteurrenean.




Hurrengo gauean, gurasoek esan ziguten AURTEN, Gabonak etxean igaro ordez, IHESALDI bat egingo genuela denok Isla de Corales uhartera.

Opariak hotelera iritsiko ote ziren galdetu nuen, eta amak erantzun zidan BIDAIA bera zela gure oparia.




Idea EZIN txarragoa iruditu zitzaidan, eta harritu ninduen aita ados egoteak. Inoiz ez du dirurik gastatu nahi izaten, eta hoteleko egonaldiak DIRUTZA balioko zuen. Baina aita nazkatuta omen zegoen eguraldi txarrarekin, eta irrikaz zegoen toki epelen batera ihes egiteko.


Nik, berriz, ez dut inolako eragozpenik hotzarekin. Are gehiago: kanpoan zenbat eta eguraldi okerragoa, orduan eta gusturago egoten naiz.



Pentsatu nuen Mannyk eta Rodrickek lagunduko zidatela aita eta ama arrastoan sartzen, erokeria hura geldiarazten. Baina ez zidaten BATERE lagundu.



Onartu behar izan nuen, hortaz, ez genituela Gabonak beti bezala etxean igaroko. Hala ere, haraino HEGAZKINEZ joan beharrak gogaitzen ninduen GEHIEN. Hegazkinez sekula ibili gabea nintzen, eta ez zidan batere graziairik egiten neure burua tutu metaliko baten barruan ikusteak.




Itxuraz, ordea, BOST axola hori beste guztiei, eta, handik bi astera, galtzerdiak zintzilikatu eta Gabonetako saio bereziak ikustera sutondoan elkartu beharrean, han ari ginen denok mailetak prestatzen, ditzosozko uharte hartara ihesaldia egiteko.

Astelehena

Goizeko 8:00etan atera ginen etxetik Eguberri bezperan. Aitak ordubete LEHENAGO irten nahi zuen, baina amak ezetz, txorakeria zela eta garaiz iritsiko ginela aireportura.

Kalean sei gradu zeropetik genituen arren, oportetarako arropa arinez jantzita zihoan Rodrick jada.



Aitak arrazoi zuen: goizago atera behar genuen.
Dirudienez, Gabon-gaukoa da jendeak gehien
bidaiatzen duen urteko egunetako bat, eta
senideak bisitatzera autoz zihoazen familiez
LEPORAINO beteta zeuden errepideak. Eta ez
zen sumatzen han gabon giro handirik.



Gauzak gehiago okertu ziren ELURRA hasi
zuenean. Mantso-mantso zebiltzan autoak. Ama eta
aita zer ordutan atera behar genuen eztabaidatzen
hasi ziren, eta aitak aireporturako sarbidea pasatu
zuen ia. Hiru erreiz zeharkatu behar izan zituen
kolpetik, eta ez zen erraza izan.

Gainezka zegoen aireportuko aparkaleku nagusia.
Eta merke horietako batera joan behar izan genuen
aparkatzera. Urrun-urrun zegoen, eta aitzak esan
zuen espaloian utziko gintuela maleta guztiekin eta
autoa aparkatutakoan etorriko zela bera.


Bidaiarien terminalean, KAOS erabatekoa zegoen.
Saiatu ginen maletak autotik ateratzen, baina
poliziek ez zuten uzten minutu erdiz baino gehiago
han gelditzen. Eta jendea oso urduri jartzen zuen
horrek eta askoz ere okerragoa zen dena.




Autoan geratu behar izan nuen aitari gainerako mailetekin laguntzeko. Rodrickek egin beharko luke lan hori, baina, hotza egiten zuenez eta bera udako arropa arinez jantzita zegoenez, libratu egin zen.

SUERTE galanta izan zuen, gainera. Iritsi ginen aparkaleku merkeko hesira, eta, aita ez zenez iristen leihotik txartela hartzeko, nik jaitsi behar izan nuen autotik.


Zoritzarrez, berandu jabetu nintzen lokatz putz handi bat zegoela autoaren nire aldean.



Aparkatu, eta arrastaka eramane genituen mailetak aireporturako autobusaren hurbileneko geltokiraino. Oso nekagarria izan zen.



Geltokian jartzen zuen hamar minutuz behin
ateratzen zela autobusa terminal nagusira. Baina
markesina jendez lepo zegoen, eta kanpoan itxaron
behar izan genuen, hotzak akabatzen.




Handik hogei minutura autobusa etorri gabe zegoen
artean, eta aita urduritzen hasi zen, berandutzen ari
zitzagula-eta. Esan zuen hobe genvela terminaleraino
OINEZ joatea. Kilometro eta erdi: huskeria.

Saia nintekeen aita konbentzitzen, apur bat
gehiago itxaroteko, baina galtzerdia izozten hasia
neukan, eta ez nuen hantxe jelatuta gelditu nahi.

Jakina, abiatu eta hogeita hamar metro eskas
urrundu orduko, autobusa agertu zen aparkalekuan.
Saiatu ginen gidariari keinuz adierazten zain
egoteko, baina ez ikusiarena egin zigun.



Beraz, KORRIKA itzuli ginen geltokira, baina ez
ginen garaiz iritsi.



Aita ordurako nerbioak jota zegoen, hegaldia
 galduko ote genuen beldurrez-edo. Gogorarazi
 nion badaudela hegaldi bat galtzea baino gauza
 askoz ere OKERRAGOAK, baina ez zegoen nire
 burutazioak entzuteko, nonbait.

